

Aurkeztu da Korrika

Joxanjel Aldai

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-14: 9.

Martin Ugalde baita Korrika 8k omenduko duena. Hori gauzatzeko "Erroetatik mintzo" liburua argitaratu dio Korrikak, Sendoa argitaletxearen eskutik. "Denok maite dugu gure herria, euskaraz" lema du, izan ere, aurtengo Korrikak, "eta lema horrek adierazi nahi duena inork baino hobeto erakutsi du Martin Ugaldek", esan zuen Edu Conde Korrikaren arduradun nagusiak.

Conderen hitzetan, "egoera zailean erbestean, herria eta hizkuntza maitatu izan zituen Ugaldek, eta maitatu ezezik hizkuntza landu ere egin zuen". Geroztik ere "konpromezuari eutsi egin diolako eta lanean jarraitzeko izan duen adoregatik" oso esker oneko hitzak izan zituen Korrikaren arduradunak Ugalderentzat. "Hain beharrezkoa den lanerako erakutsi duen ahalmenagatik, guretzako eredu da".

Korrika 8ren mezua "oso sinple eta argitzat" jo zuen Edu Condek. Herria eta hizkuntza lotu nahi dituen mezua dela azaldu zuen, "ezin bereiz daitezkeelako. Eta horregatik, gure herria maite badugu, euskaraz izan behar da". Hori dela eta "euskararen bidea urratzen hasteko", "euskara eta herria ezagutzen hasteko" eskatu zien erdaldunei Korrikaren arduradunak. Euskaldun direnei, berriz, "landu dezatela, kalera dezatela beren hizkuntza", eskatu zien Condek. Euskaltzaleei, batzeko deia egin zien Korrikako arduradunak.

Ordezkaritza zabala Bilbon

Hil honen 26an Iruñean hasi eta apirilaren 4ean Bilbon bere bidea bukatzekoa duen aurtengo Korrika honen aurkezpen ekitaldira jende ugari bildu zuen AEK-k.

Han ikusi genituen, besteak beste, Martin Ugaldez gainera, Koldo Izagirre, Gotzon Garate, Patxi Uribarren, Laura Mintegi eta Anjel Zelaieta idazleak. Iñaki Uria EGUNKARIAren zuzendaria ere han zen, baita Xabier Kintana, Pello Salaburu eta Antton Azkargortza irakasleak ere. Kirolariak ere bertan izan ziren, nahiz eta Athleticeko jokalariek azken urtean huts egin zuten. Baina Jose Angel Iribar, Josu Bereziartua eta Amaia Aranzabal behintzat ikusi genituen.

Martin Ugalde omendua

Esker oneko hitzez hasi eta bukatu zuen Martin Ugaldek bere hizketalditxoa. 'Erroetatik mintzo' liburuaren hitzaurrea idatzi dion Koldo Izagirrek egin zion bizitzaren eta

obraren azalpena. Eta Izagirrek bota zizkion hitz ederren ondotik "hor aipatu duzuna ez dakit ni naizen edo besteren bat den", aitortu zuen Ugaldek, umil.

Sorreratik "AEK-k lanerako izan duen kemena" nabarmendu zuen Ugaldek. Euskarak egin duen "bekatu nagusia" erromatarren aurrean eta haien hizkuntzaren aurrean amore eman ez izana izan dela esan zuen. Eta harrez geroztik zanpatua izan dela esan zuen omenduak, eta "oraindik erasopean jarraitzen du askatasunaren izenean". Horregatik, Martin Ugalderekin ustez, "biziki eskertu beharrekoa da urteotan AEK-k egindakoa". Sorreatatik gaur arteko honetan AEK-k laguntzarik gabe eta eskean aritu behar izan duela gogorarazi zuen Ugaldek.